# Sexualitatearen Koloreak



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Sexualitatearen Koloreak

## ZER DA?

Gazteek adierazitako beharrak, hezitzaileen kezkak eta baliabide teoriko desberdinak abiapuntu gisa hartzen dituen Aniztasunari buruzko Gida da.

Horrela, teoria, praktika eta material gehigarriak batzen dituen Aniztasunari buruzko Gida osatu da.

Honetara jotzeko kitzikagarria izango delakoan, triptiko honetan galdera, zalantza eta zailtasun konkretuei **lantze jarreratik** erantzuteko pistak batu dira.

## NOLA GARATU LANTZE JARRERA?

**Lantze jarrera da pertsona gaztearen beharretara egokituz erantzutea baimentzen duen jarrera. Ondoko puntuetan laburbildu daiteke:**

- **Akonpainamenduan oinarritu:** ez izan gazteen gidari, baizik eta bidelagun.
- **Erabakiak hartzeko gaitasuna sustatu:** gazteek hartuko dituzte erabakiak hezitzaileek eskainitako informazioaz baliaturik. Soilik horrela laguntzen baita ahalduntze prozesu indibidualean.
- **Planteatutako galderatik haratago joan:** galdera edo zalantza bat erantzun aurretik egokia da pentsatzea zergatik egiten den hau. Era honetara lortuko baita erantzun osoago bat ematea.
- **Ezer jakintzat ez ematea:** gazteak dituzten arazoei era egokian erantzuteko beharrezkoa da errealitatea lehen pertsonan ezagutzen dutenen arabera ulertzea. Edozein erantzun eman aurretik, jasotako informazioa era egokian ulertu dela ziurtatu beharko da.
- **Baliabide gehiago bilatu:** batzuetan zerbitzu gehigarriak beharrezkoak dira, adibidez, aholkularitza. Kasu hauetan, baliabideen bilaketa bere beharra duen gaztearekin batera egin daiteke, baliabide aukeraketa arduratsua sustatuz.

## GEHIAGO SAKONDUZ:

Jarrera kontu bat baino, uste duzu formakuntza galera edota informazio berria eta fidagarria bilatzeko zailtasuna duzula? Hala bada, Gida bere osotasunean ezagutzea seguru lagungarri izango zaizula Aniztasunaren arloan dauden kontzeptu eta errealitate desberdinak ulertzeko.

Material hau bertsio digitalean nahiz paperezkoan lortu daiteke. Honetarako, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) Berdintasun lan-arloarekin edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Behatokiarekin harremanetan jartzea besterik ez duzu egin behar.

- **Euskadiko Gazteriaren Kontseilua:** www.egk.eus
- **Bizkaiko Behatokia:** www.gaztebizz.eus

## PROIEKTUTIK HARATAGO:

Eduki edo aholkularitza gehiago behar izanez gero, ondoko zerbitzuetara jo daiteke:

- **Berdindu zerbitzua:** http://bit.ly/2jo2FFC
- **Bizkaiko Sexualitate Aholkularitza Zerbitzu Publikoak:** http://bit.ly/2geyD54